

## 7. Funtsezko baliabideak

Gure ideia funtziona dezan proiektuaren elementu garrantzitsuenak behar ditugu. Hauek oinarritzko 4 elementutan banatzen dira:

Lehenengoak baliabide fisikoak dira, hau da, ordenagailu edo maketa bat. Eta lan egingo dugun bulego edo lokalak ere bai.

Bestetik, baliabide intelektualan, dentistak eta aurretik braket izan duten pertsonak kontratatuko ditugu. Integratuko ditugun txipetarako teknologia berritzailea garatzen dakien jendea ere beharko dugu. Gero ere, aplikazioa eta webgunea egiteko programazioan eta sentsoreen diseinuan trebetasunak ere dituen norbait beharko genuke.

Beste elementu bat giza baliabideak izango lirateke, aurrekoaren nahiko antzekoa. Bereziki grafikoak egiten lan egiten duten pertsona kualifikatuak dira, edota ikasle bat. Ideia desberdinak emateko jendea ere beharko genuke.

Eta azkenik baliabide ekonomikoak, materialak erosteko aurrekontua izan behar dugu hasieran. Diru hori patrozinatzaileekin edo ekintzailetza-lehiaketetan lor dezakegu.

